

2020-2021 IKASTURTEAN GARATZEKO **PROPOSAMENA**



ZAMUDIOKO ESKOLA

Arteaga auzoa, 42
Tlf. 944520826 Fax. 944521349
E-mail: 014489aa@hezkuntza.net
48170 Zamudio



AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	
Helburua.....	
1.- Eskolari dagokionez.....	
1.1- Banakako eremua.....	
Antolaketa.....	
Ikastetxean.....	
Klasean.....	
Metodologia/protokoloa.....	
Curriculuma.....	
1.2- Talde eremua.....	
Metodologia.....	
Tutoretza.....	
2.- Konfinamendu egoerak ekar ditzakeen aldaketen zehaztapena	
3.- Egoera ezberdinetan jarraitu beharreko prozedura.....	
3.1. Jarrera bakoitzaren araberako prozedura.....	
3.2. Krisialdiak.....	

1. Eranskina: ZAINTZEN TAULA
2. Eranskina:SAIOAREN PLANIFIKAZIOA
3. Eranskina:IKASLEAREN ORDUTEGI BISUALA
4. Eranskina: ASTEKO KONTROL ORRIA
5. Eranskina: KRISIALDIAREN ERREGISTROA

2020-2021 IKASTURTEAN GARATZEKO PROPOSAMENA

Aukezpena:

____-k erakusten dituen hezkuntza premia bereziak direla eta, hurrengo eskuhartzea proposatzen da. Proposamen hau, alde batetik, ebaluagarria izango da eta egoera desberdinetara egokitu ahal izango da eta bestalde, berarekin lan egiten dituzten pertsonen adostasuna eskatuko du.

Planteamendua, Saumell, Alsina eta Arroyoren (2011) "Alumnado con dificultades de regulación del comportamiento" liburuaren ebaluazio gida erabili ostean ondorioztatutako lan programa bat da eta 2018-2019 ikasturtean egindako proposameneran jarraipena da.

Honez gain, ikaslea Osatuz programan sartuta egon zenez iaz, terapeutak emandako gomendioak kontutan hartu dira dokumentua diseinatzeko.

Helburua:

Eskolak prebentzio lanak egitea, ____-k dituen ikaskuntzarako eta parte-hartzerako oztopoak murriztuz.

1.-ESKOLARI DAGOKIONEZ

-Gela bat prestatu da ikasle honekin interbentzioa egiteko. Gela hau aholkulariak ematen duen PT saioetarako erabiliko da, lasaitzeko gela bezela erabiliko da eta zaintzetako irakaslea egoteko izango da. Bertan egingo dira mini-taldearen bilerak eta Osatuzekoak egotekotan.

-Irakasle bat egongo da beti zaintzan ikasle honen beharrei edo krisialdiei aurre egiteko. (ikus 1 eranskina).

-Goizeko patioko orduetan hezitzailea egongo da bere kargu; hala ere, irakasle bat (aholkularia) ere egongo da bere kargu lasaitzeko gelan geratzeko erabakia hartzen badu. Ikasleak erabakiko du patiora jaitsi nahi duen jolastera edo berarentzat prestatutako gelan jolasten geratu nahi duen bere gelako beste 3 ikasleekin. Planteamendu honekin jolas harreman positiboak edukitzea da helburu.

-Jantoki orduan hezitzaileak daude bere kargu, hala ere, zuzendaritza taldea zaintzan egongo da. Aukera dago jantokiko patioko zati bat kalean egoteko eta beste zatia gela batera jolastera sartzera gonbidatzeko gelako beste 3 kideekin batera. Horrela lasaitasun gehiagorekin jolasteko aukera izango dute.

12:30-13:10- Patioa

13:10-13:50- Bazkaria

13:50-14:30-Barrura lagunekin jolastera

-Mini talde bat osatuko da eta astero elkartuko da ikasle honen interbentzioa aurrera eramateko. Mini-taldeko partaideak hauek dira: tutorea, hezitzailea, ikasketa burua, aholkularia eta Osatuzeko terapeuta (jarraipena egotekotan).

-Ikaslearekin dauden profesional guztiei planaren azalpena emango zaie guztiek ikuspuntu berdina izan dezaten eta "Alumnado con dificultades de regulación del comportamiento" liburua irakurtzeko aukera emango zaie.

1.1.-BANAKAKO EREMUAN

ANTOLAKETA

Ikastetxean:

- Ikaslearekin atxikipena duen pertsona eta afektiboki lotura duena erreferentziazko pertsona izendatu da: aholkularia. Pertsona honen eginkizuna: goizeko, patio osteko eta jantoki ondorengo sarreran bere harreraz arduratu. Hau da, zelan pasatu duen aurreko egunean galdetu, patio orduan, zer bazkaldu duen, nola sentitzen den... Ardura erakutsi bere pertsonaren gainean. (Banakako tutoretza).
- Komenigarria da hau galdetzen den heinean eskailerak berarekin igotzea, taldea jarrai dezan. Gaizki ikusten bada, aholkulariak ikaslearentzat prestatutako gelara eramango du eta tutoreari abisua emango dio.
- Momenturen baten klasetik atera behar bada ikaslearentzat prestatutako gelara eramango da.
- Ordutegia. Saio bakoitzean norekin egongo den zehaztu eta berari jakinarazi. Ahalik eta jende gutxien parte-hartzea komeni da.

Klasean:

- Klaseko kokapena baloratu. Bere ondoan ikasle lagungarriak esleitu, berari laguntza eskaini diezaien. Ikasle honen edo hauen figura, aldakorra izatea komeni da.
- Aldez aurretik, klasean zer egin behar izango duen azaldu behar diogu. Pausuz pausu, planifikaturik, aurkeztuko zaizkio burutu behar izango dituen atazak, berak egin behar izango duena aurreikusteko. Ez-ohiko jarduera bat egongo bada aurretik abisatzea komenigarria da.

Honetarako, planifikazio taula bat diseinatu da eta irakasle bakoitzak saio bakoitzean ikasleak zer egin behar duen azaltzeko aukera izango du. (ikus 2.eranskina).

- Oso inportantea izango da, klasean dagoenean zein ikasgaia izango duen eta norekin egongo den argitzea. Horretarako, ordutegi bisuala egin eta erabiliko dugu, errutinak finkatzeko helburuarekin (ikus eranskina 3)

METODOLOGIA/ protokoloa

- Oso inportantea da berarekiko lotura afektiboa erakustea, begietara begiratzea, ukitzea (kontaktu fisikora era positiboan erantzuten du).
- Ariketa laburrak eta grafikoak aurkeztu. Ahal den neurrian ariketa mota laburrak eta desberdinak planteatu, manipulazioa eskatzen dutenak.
- Taldean ematen diren ahozko azalpen luzeetan aukera eman bisualki jarraitzeko- edo beste ariketa mota bat burutzeko, bitartean.
- Berari zer gustatzen zaion aztertu (interesak zeintzuk diren jakin) eta planteaturiko ariketa bukatutzat ematen denean hura egiten utzi (gurutzegramak, labirintoak. Kasu honetan erabiliko dugun teknika –fitxa ekonomia- izango da eta 2. eranskinean adierazitako formatua erabiliko da.
- Asteko kontrol orri bat erabiliko da (ikus 4.eranskina). Eguneko saio bakoitzaren bukaeran balorazioa egingo da eta gomets berdea lortu duen ala ez aztertuko da umearekin. Egunean zehar 5 gomets berde lortzen baditu, eguneko “denbora librea” lortzen du. Lortutako denbora libre hau, eskola bukatu aurreko 15 minutuak izango dira eta berak aukeratuko du zer egin momentu horretan.

- Saiatu bere jarrera agresiboak aldeztu aurretik identifikatzen eta jardueraz aldatu. Jardueraz aldatzen badugu eta jarrera agresiboa agertzen bada klasetik atera.
- Klasetik atera egin behar bada, aurretik esan bezala leku finko eta lasai batera eraman. Une hauetan, lasaitasun egoeran egotea eta eskatzea bera nola sentitzen den azaltzea, oso inportantea izango da.
- Klasetik ez badu atera nahi, taldea beste gelara eramango da.
- Egoerak aurre-ikustea landu. Berarekin hitz egin laguntzeko asmoaz gaudela adieraziz eta aztertu zer egin zezakeen leherketa ekiditeko.
- Zer funtzionatzen du berarekin/zerk jartzen du bere burua disparaderoan aztertuko da berarekin.
- Irakasle edota ikasleren batekin arazoren bat baldin badu, aholkulariak ikaslearekin hitz egingo du eta arazoa konpontzen saiatuko da eguna bukatu aurretik.
- Klase aldaketetan zera adieraziko diogu: berarekin erabiltzen dugun gelan egongo garela zerbait behar badu.

CURRICULUMA

- Minimoak arloka landuko dira, lehentasunak zehaztuz eta funtzionaltasunarekin loturik. Helburu nagusienetako bat aurreko ikasturteetako arloak gainditzea da, horretarako Curriculum Sarbiderako Egokitzapena (CSE) eta Hezkuntza Indartzeko Banakako Plana (HIBP-PIRE) diseinatu da.

1.2.-TALDE EREMUAN

METODOLOGIA

- Taldeko lana bultzatuko da, ahal den neurrian, Covid-19 protokoloa beti ere kontutan hartuz. Talde malguak eta heterogeneoak (baloratu nortzuk diren hurbileko kideak – aldaketak) proposatuz.
- Maila desberdinetako ariketak proposatuko dira.

TUTORETZA

- Klasearekin adimen emozionala jorratu: emozioak identifikatu, gizarte trebetasunak (pasibo/asertibo eta agresiboa-role playing-aren bidez,...). Bestalde, ikasleak zertan diren onak identifikatu eta aprobe txatu tutoretza saioak eta beste ikasgaiak indartzeko.
- Ardurak banatu ikasleen artean erantzukizuna sustatzeko.
- Role-playing: gizarte trebetasunak: jarrera asertibo, agresibo eta pasiboa. Gipuzkoakoa (banaka berarekin).
- Epe laburrerako “helburua” markatu berarekin.
- Planaren azalpena ikasleari adierazi.

2.- KONFINAMENDU EGOERAK EKAR DITZAKEEN ALDAKETEN ZEHAZTAPENA

Konfinamendu egoerak eguneroko lanean aldaketak ekar ditzakeenez, egoera ezberdinak zehatuko dira, hala ere, aurretiaz ikasleari azalduko beharko zaio zelan funtzionatuko den:

2.1.- Osatuzeko terapeuta konfinatuta egotea (jarraipena izatekotan)

Horrela bada, ikasleak bideodein bidez jasoko du terapeutaren laguntza bere orduan eta zaintzan dagoen pertsona ondoko gelan egongo da ikasleak laguntza behar badu, emateko.

Ikasleak bere cromebooka eramango du lasaitzeko gelara eta bertan prestatuta dagoen kutxa erabiliko du saiorako.

Kutxa hornitzeko materiala:

- Playmobil familia, animalia basatiak eta etxabereak.
- folioak
- margoak
- Inprimatutako marrazkiak

2.2. Ikaslea konfinatuta egotea

Gurasoekin hitz egin bideodeiak egiteko prest dauden: bai terapeutarekin (jarraipena izatekotan), baita aholkulariarekin ere. Tutoreak eta aholkulariak lana prestatuko diote.

2.3. Tutorea konfinatuta badago

Tutorea ordezkatzeko da gelan eta aholkulariak azalduko dio egoera ikasleari. Hezitzailearekin egongo da gelan bere saioetan eta hezitzailearik ez duenean, aholkularia egongo da zaintzan eta beharrezkoa bada, bera egongo da ikaslearekin.

2.4.- Tutorearen herena konfinatuta badago

Tutorearen herena ordezkatzeko da, aholkulariak azalduko dio egoera ikasleari. Hezitzailearekin eta aholkulariarekin dago saio hauetan.

2.5.- Hezitzailea konfinatuta badago

Hezitzailea ordezkaturako da eta aholkulariak azalduko dituen egoera ikasleari. Hezitzailearen ordezkarekin aholkulariak hitz egingo du eta aholkulariak landuko du bien arteko erlazioa.

2.6.- Aholkularia konfinatuta badago

Tutorearen eta hezitzailearen figura indartu egin behar da erreferentziazko pertsona falta denerako.

Tutoreak azalduko dituen ikasleari egoera eta aholkulariak bideodeiak egingo ditu ikaslearekin. Pertsona bat gelditu beharko da ikaslearekin zaintzan, ikasleak laguntza behar badu, emateko.

Ikasleak Cromebooka eramango du lasaitzeko gelara eta prestatutako lana aurrera eramango du ikaslearekin.

3.- EGOERA EZBERDINETAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

3.1. JARRERA BAKOITZAREN ARABERAKO PROZEDURA

1.MAILA: JARRERA EGOKIA. Deskribapena: Orokorrean lasai dago eta ez du molestatzen. Entzuten gaitu eta geure eskaerei nahikotxo erantzuten du. Interes apurra adierazten du esaten ari gatzaizkion jardueran, nahiz eta ondo ez egin.

ZER EGINGO DUGU:

- Zoriondu
- Protagonismo momentuak eman: badakizkien gauzak galdetu, irakaslearen laguntzailea izan...
- Mezu hauek erabili: “Zein ondo egiten ari zara!!”, “Laguntza behar duzu?”, “oso pozik gaude ondo portatzen ari zarelako...”
- Jarrera taulan gomets berdea lortuko duela gogoratu

2.MAILA: EGONEZINA DU. Deskribapena: Mugitzen hasten da, zerbaitekin fijazioa hartzen du. Probokazio arinak hasi dira, orria bota, arkatza, oihuren bat...

ZER EGINGO DUGU:

- Hurbildu
- Interesatzen zaion gai batekin erakarri: maten kalkulagailuak atera, pantaila ariketak egin...

NORK EGINGO DU: berarekin dagoen pertsonak

3.MAILA: PROBOKAZIOAK LARRIAGOTZEN DIRA. Deskribapena:

Mugimendu agresiboago batekin hasten da. Gauza handiak botatzen ditu, objektuak apurtzen ditu eta haserretu egiten da. Gelatik korrika egiten du apurtzeko bere hurrengo objektua topatzen. Ikaskideak eta irakasleak iraintzen hastean da. Jendea mehatxatzen eta iraintzen du. Krisialdi protokoloa martxan jarri.

ZER EGINGO DUGU:

-Gelatik atera zaintzan dagoen pertsonaren laguntzaz eta lasaitzeko gelara eraman.

-Ezin badugu atera, gelakideak joango dira beste gela batetara (ez da erabiliko berarentzat prestatutako gela).

-Krisialdian adierazitako kontentzio psikologikoaren irizpideak kontutan hartu.

NORK EGINGO DU: zaintzan dagoen pertsonak edo umearekin dagoenak

ONDORIOAK: nahiz eta lasaitasunera bueltatu, ezin da joan dena batuta utzi arte, nahiz eta patio ordua, etxera joateko ordua izan...

4.MAILA: ALDE EGITEN DU ETA GAUZAK APURTZEN DITU. Deskribapena:

Muga pasa duela ulertu duenean, ez diogunez onartuko, berarengana hurbiltzen gara eta alde egiten du.

ZER EGINGO DUGU:

ALDE EGITEN BADU	
BEGIBISTAN BADAUKAGU	EZ DAKIGU NON DAGOEN
-Distantzian mantendu	-Bilatu
-Ikaskideek kasurik egin ez diezaioten saiatu	-Berarengana hurbildu astiro
-Bera zaintzeko gaudela adierazi.	-Lasaitzeko gelara gonbidatu
	-Oratu eta lasaitzeko gelara eraman

ZERBAIT APURTZEN BADU	
ESKOLAKO BADA	IKASLE BATENA BADA
- Konpontzen saiatuko da.	-Gurasoak informatuko dira eta beraiek erabakiko dute berri bat erosiko dioten.
- Barkamena eskatuko du.	-Barkamena eskatuko du

NORK EGINGO DU: zaintzan dagoen pertsonak

ONDORIOAK: Barkamen eskatu, apurtutako objetua konpontzen saiatu...

5.MAILA: ERASO FISIKOA. Deskribapena: nagusiak edota ikasleak erasotzen ditu

ZER EGINGO DUGU:

Erasotuarekin:

-Ikaslea urrundu min gehiagorik egin ez diezaion. Kasu egin eta gure laguntza eman.

-Erasoa jasan duen ikaslearen familia informatu.

Erasotzailearekin:

-Euste fisikoa egin. Bi pertsonen artean egiten bada, hobeto.

-Lasaitzeko gelara eraman

NORK EGINGO DU: zaintzan dagoen pertsonak

ONDORIOAK: Barkamena eskatu, egindako mina kentzen saiatu (masajea, krema, sendatu...).

3, 4 eta 5 mailetan emandako jarrerak non adierazi:

Krisialdi baten ondoren, ikasleak erabiltzen duten gelako (lasaitzeko gelako) karpeta gorrian dagoen txostenak bete behar izango dira bertan adierazten diren datuak era zehatzean adieraziz (ikus eranskina 5).

- **Krisialdi erregistroen egutegia:** bertan gurutze bat jarri beharko da krisialdi bakoitza edukitzen duenean, horrela maiztasuna aztertuko dugu.
- **Krisialdi erregistroa:** txostena bete datuak zehaztasunez eta objetiboki adieraziz.

Gurasoei nork eta noiz adierazi

-Nork adierazi?

-1 2 eta 3 mailetan emandako jarrerak tutoreak adieraziko die gurasoei

-4 eta 5 mailetakko jarrerak zuzendariak adieraziko dizkie

-Noiz?

- Arratsaldean, klaseak bukatzerakoan

-Non?

-Leku pribatu batean: zuzendaritzako bulegoan...

3.2.- KRISIALDIA DAGOENEAN EDUKI BEHAR DUGUN JARRERA

Urduri jartzen ari dela antzematen bada, euste psikologikorako neurriak jarraitu.

Zer egin?

- Euste psikologikoaren helburua irakasle-ikasleren arteko konfiantzazko atxikipena lortzea eta lasaitzea da.
- Kontutan hartu beharrekoa:
 - Ez sartu probokaziotan
 - Bere arazoa ez egin gure arazoa. Distantzia psikologikoa hartu. Horrek gu ez haserretzen eta bere haserrean ez sartzen lagunduko digu.
 - Ahots doinu lasaia mantendu eta doinua jaitsi.
 - Inportantea da gure gorputzezko lengoaiarekin transmititzen ari garena.
 - Baloratu gure kokapen fisikoak lasaitu edo aztoratu egingo duen (zutunik, bere mailan, ondoan, aurrean).
 - Gonbidatu beste gela batera joaten.
Entzumen aktiboaren garrantzia. Erantzun aurretik bere haserrea adierazten utzi.
 - Bere haserreaz ohartarazten garela adierazi eta ulertzen zaiola adierazi.
 - Egin edo egin behar ez duena ez azaldu.
 - Haserrea gutxitu egin denean ikaslearekin enpatizatu, berarekin ados ez gara egon behar.
 - Gertatutakoa eta gero gure sentimenduak adierazi eta hurrengoan beste modu batean jokatzeko eskatu. (gidoi sozialak).

1 ERANSKINA

ZAINTZEN TAULA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9-10	*AHOLKULARIA	HLE1	AHOLKULARIA	HLE1	HLE1
	HLE1				
10-11	HLE1	HLE1	HLE1	HLE1	HLE2
11-11.30	HLE1+AHOLK	HLE1+AHOLK	HLE1+AHOLK	HLE1+AHOLK	HLE1+AHOLK
11:30-12:30	AHOLKULARIA	HLE1	HLE1	HLE2	AHOLKULARIA
	HLE+ZUZEN	HLE+ZUZEN	HLE+ZUZEN	HLE+ZUZEN	HLE+ZUZEN
14:30-15:15	AHOLKULARIA	AHOLKULARIA	AHOLKULARIA	AHOLKULARIA	* AHOLKULARIA
15:15-16:00	AHOLKULARIA	AHOLKULARIA	AHOLKULARIA	AHOLKULARIA	* AHOLKULARIA

*Zaintzak: Aholkularia zaintzan dago.

-Besteak umearekin gauden saioak dira

-Goizeko patio orduan HLEak egingo du zaintza, baina ikaslea jolas gelan geratzen bada, aholkularia geratuko da berarekin.

-Jantoki orduan HLEak egongo dira berarekin, baina laguntza behar badute zuzendaritzak lagunduko die.

2 ERANSKINA

SAIOAREN PLANIFIKAZIOA



Saio bakoitza 5 ataletan zatituko da, atal bakoitzean irakasleak saio horretan ikasleak egin behar duena zehaztuko du. Adibidez, lanerako prest, azalpenetan parte hartu, irakurri, lan egin eta denbora-pasak

Saioaren azpiatal bakoitza egiten badu gomets berdea lortuko du. Saio bakoitzeko balorazioa, asteko kontrol orrira pasatuko da

3 ERANSKINA

IKASLEAREN ORDUTEGI BISUALA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9:00-10:00	 EUSKERA -NOREKIN	 MATE NOREKIN	 NOREKIN	 NOREKIN	 NOREKIN
10:00-11:00	 HEZIKETA FISIKO NOREKIN	 NOREKIN	 NOREKIN	GAZTE NOREKIN 	GAZTE 
11:00-11:30	 PATIOA	 PATIOA	 PATIOA	 PATIOA	 PATIOA
11:30-12:30	 NOREKIN	GAZTE NOREKIN 	 NOREKIN	EUSKERA NOREKIN 	NOREKIN 
12:30-14:30	 PATIOA  JANTOKIA ETA	 JANTOKIA ETA PATIOA 	 JANTOKIA ETA PATIOA 	 JANTOKIA ETA PATIOA 	 JANTOKIA ETA PATIOA 
14:30-15:15	NOREKIN 	 NOREKIN	 NOREKIN	NOREKIN 	BALOREAK NOREKIN 
15:15-16:00	 NOREKIN	 NOREKIN	 NOREKIN	NOREKIN 	NOREKIN 

4 ERANSKINA

ASTEKO KONTROL ORRIA



LORPENAK

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9:00-10:00	●				
10:00-11:00					
11:00-11:30	PATROA	PATROA	PATROA	PATROA	PATROA
11:30-12:30					
	JANTOKIA	JANTOKIA	JANTOKIA	JANTOKIA	JANTOKIA
14:30-15:15					
15:15-16:00					

Eguneko saio bakoitzean gomets berde bat lortu ahal izango du. 5 gomets berde baditu, arratsaldeko azken 15 minutuetan (15:45etan) denbora librea izango du.

5 ERANSKINA

KRISIALDIAREN ERREGISTROA

KRISIALDI ERREGISTROAREN EGUTEGIA

IKASLEA: _____

MAILA: _____

IKASTURTEA:20-21

	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										
11										
12										
13										
14										
15										
16										
17										
18										
19										
20										
21										
22										
23										
24										
25										
26										
27										
28										
29										
30										
31										

KRISIALDIAREN ERREGISTROA

Krisialdi bat ematen denean, berarekin dagoen pertsonak taula hau beteko du era **objektibo eta zehatz** batean.

Horretarako honako **adibide** hauek erabiliko dira taulako atal bakoitzean:

Data/ ordua eta norekin: 2019-02-02 11:30

Gatazkaren deskribapena: oihuka hasi da, laguna jotzen hasi da ...

Ustezko zergatia: zailtasun akademikoak, frustrazioa (jolasa galdu duelako, erratu egin delako, ezetza entzun duelako ...), amorrua, haserrea ...

Esku-hartzea: zuzendaritzara eraman dugu, laguntza gelara joan da ...

Bilakaera: 30 minutu pasatu ondoren gelara bueltatu da, ez da egun osoan gelara sartu ...

Zelan konpondu: nola konpondu den adieraziko da, gaiaz aldatzen, marrazki bizidunaz hitz egiten...

KRISIALDIAREN ERREGISTROA

DATA/ORDUA:

NOREKIN:

GATAZKAREN DESKRIBAPENA

USTEZKO ZERGAITIA

ESKU-HARTZEA

BILAKAERA